



## **KALTE-ORDAINA BILBOKO INDARKERIAREN 2 ZENBAKIKO EPAITEGIKO LANGILE OHIARI**

Bilboko 2. zenbakiko indarkeria-epaitegiko langile ohiak kalte-ordaina lortu du lan-arriskuen arloko prebentzio-neurriak ez hartzeagatik jasandako kalteengatik.

Izan ere, azkenean, langile hori, epaitegi horretan eragindako kalteengatik bi urtez tratamendu medikoan egon ondoren, salaketa jartzera ausartu da.

Kontua da adiskidetze-ekitaldian (dokumentua erantsi dugu) eta epaiketara iritsi beharrik gabe aseguru-etxeak 20.955,36 € eskaini dizkiola jasandako kalteen kalte-ordain gisa.

Sindikatu honen asmoa ez da diruzko kalte-ordainak lortzea; gure asmoa da epaitegi honetan sortzen diren arazoak behingoz konpontzea.

Hala eta guztiz ere, gure ustez, bai Bilboko Lan Arloko 6 zenbakiko Epaitegiaren epaiak, bai Eusko Jaurlaritzak EAEANri errekurritu eta sindikatu horrek irabazitakoak (honekin batera doazkigu), gertatutakoaren egiazkotasuna bermatzen dute. Horren ondorioz, hiru langileri honako kalte-ordain hauek eman zaizkie: 27.110.82 €, 15.220 € eta, azkenik, salaketa jarri duen azken langile horri 20.955,36 €-ko kalte-ordaina eman diote.

Aspalditik dakigu GGPJren aurreko salaketak zaku hautsian erortzen direla, eta salatzailearen aurka ere badoazela; izan ere, oso zaila da organoaren egoera langileek islatzea, oraindik ere bertan lan egiten dutenean. Hala ere, sindikatu honen betebeharra da langileen defentsa zaintzea, eta horregatik borrokatzen jarraituko dugu.

2021-10-25